



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



Psikologia Fakultatea  
Facultad de Psicología

# **ERREFUXIATUAK ETA HARRERA HERRIAK**

## **Gipuzkoako Harrera Sareen Azterketa**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**2018-2019**

**HUARTE GONZALEZ, INES**

**Zuzendaria: Arnoso Martínez, Ainara**

## AURKIBIDEA

LABURPENA ETA HITZ GAKOAK	2
SARRERA	3
MARKO TEORIKOA	5
1. Populazio errefuxiatuaren egoera harrera herrialdeetan	5
2. Errefuxiatuak eta integrazioa harrera herrian	7
3. Instituzioen papera eta integrazio politiken beharra	8
3.1. Integrazio politikak gobernuko maila anitzetan	9
3.2. Gizarte zibilaren papera	11
4. Gizarte hartzailearen erronkak	12
GIPUZKOAKO HARRERA SAREAK: PARTE HARTZAILEEN AHOTSAK	13
1. Iritsi berrien zaugarritasun egoera: asetu gabeko beharrak eta sortzen diren beldurrak	14
2. Elkartasunaren indarra: hutsuneak bete, instituzioei presioa, integrazioa, salaketa eta herritarren sentsibilizazioa	15
3. Erronkak Harrera Sarearen ibilbidean: baliabide urriak, koordinazioa, barne gatazkak, boluntariotzaren inplikazioak eta komunikazioa	16
ONDORIOAK	18
ERREFERENTZIAK	21

## LABURPENA

Munduan zehar dauden pertsona desplazatu kopurua urtetik urtera igotzen ari den fenomeno da eta horrek pertsona etorkin eta errefuxiatuek harrera herrialdeetara iristean dituzten beharrei arreta jartzea eskatzen du. Lan honetan, populazio errefuxiatuak harrera herrialdeetan bizi duen egoera eta integrazioarako zailtasunak azaleratuko dira eta iritsiera horien aurrean herrialde hartzaileek garatu dituzten inizatiba, zerbitzu eta politika ezberdinak aztertu ere. Esfortzu honetan gobernuko maila anitzen papera behatzeaz gain, integrazio politiken beharra, gizarte zibilaren funtzioa eta elkartasunaren garrantzia azpimarratzen dira. Testuinguru hurbilera ekarriz eta errefuxiatu eta etorkinen arteko ezberdintasuna alboratu gabe, Gipuzkoan, 2018ko udan bizitako migrazio fluxuaren ondorioz sortutako herritarren harrera sareak aztertuko dira, hemendik lortutako ikaskuntzak errefuxiatuekin lan egiteko lagungarriak izan daitezkeelakoa.

*Hitz gakoak:* errefuxiatua, integrazioa, harrera, politikak, gizarte zibila, Gipuzkoa, Herritarren Harrera Sarea

## RESUMEN

La cantidad de personas desplazadas por el mundo es un fenómeno que aumenta de año a año, requiriendo poner atención a las necesidades de las personas migrantes y refugiadas en los países de llegada. Este trabajo explica la situación de la población refugiada en la sociedad de acogida y las dificultades para su integración, examinando al mismo tiempo distintas iniciativas, servicios y políticas desarrollados por los países que los acogen. Se distingue el papel de distintos niveles de gobierno, recalcando la necesidad de políticas de integración, el papel de la sociedad civil y la importancia de la solidaridad. Acercando el foco al contexto de Guipúzcoa, y sin obviar las diferencias entre refugiadas y migrantes, se analizan las redes de acogida ciudadana creadas a partir del flujo migratorio vivido en el verano de 2018. Los conocimientos adquiridos en esta investigación pueden ser útiles para el trabajo con la población refugiada.

*Palabras clave:* población refugiada, integración, acogida, políticas, sociedad civil, Guipúzcoa, Red de Acogida Ciudadana

## SARRERA

Gizakion historiak inoiz ezagutu duen exodo baten aurkitzen gara, XXI. mendearen hasiera honetan, etxetik kanpo bizitzea gorantz doan mugimendua bihurtzen ari da. Bakarrik 2017. urtean, hirurogei milioi pertsona baino gehiago aurkitzen ziren lekualdatze behartu egoeran (CEAR, 2018). Ihesaldi honetan, milaka lagunek bizia galdu dute Mediterraneoko itsas bideetan, Europako kostaldera heltzeko ahaleaginean. Honen aurrean Europak dituen hamaika erronketako bat *atea jotzen duten ezezagun* berrien eta haiekin dakarten aniztasun etnokulturalaren gizarteratzea da (Bauman, 2017).

Mugimendu migratzaile internazionaleri buruz hitz egiten dugunean, motibazio eta faktore desberdinetaz ari gara, arrazoiak politikoak, ekonomikoak, baita hondamendi naturalak izan daitezke, herri berri bat ezagutzeko nahia, maitasuna, etab. (Cortes, 2004). Gaur egun, gainera, klima-aldaketa dela eta (uholdeak, urakanak, ekaitzak, baso-suteak, sumendi erupzioak, temperatura oso altuak, etab.) beste herrialde batzuetara migratzera behartuta izaten den pertsona kopurua handitu egin da (Bates, 2002), urteroko batz bestekoa 2008tik 2015ra bitartean 25.4 milioi pertsonakoa izan delarik (Internal Displacement Monitoring Centre, 2016).

Aldi beren, genero ikuspegi batetik, kontuan hartzekoa da generoan oinarritutako indarkeria gero eta kanporatze faktore garrantzitsuagoa bihurtzen ari dela emakume eta LGTBI+ kolektiboarentzat. ACCEM (2015) edo Amnistia Internazionala (2019) erakundeek ohartarazten duten bezala, pertsona guztiek oztopoak eta zailtasunak aurkitzen badituzte beren ihesaldietan, emakume eta genero identitate anitzen kasuan bidaiaren etapa bakoitzean sufritzen duten indarkeria eta diskriminazio sexuala gehitu behar zaio. Kanporaketa mota hauek pobrezia generoagatik baldintzatuta dagoela defendatzen duen ikuspegiarekin guztiz lotuta daude (Jackson, 1998).

Argi dago, mugimendu guzti hauek ezaugarri eta zailtasun desberdinak inplikatzeko dituztela, beraz, ohikoa da desplazamendu hauei erreferentzia egiteko terminologia desberdina erabiltzea. Errefuxiatuak deskribatzeko erabilitako definizio ohikoena 1951ko Ginebrako Hitzarmenean aipatzen dena da. Honen arabera errefuxiatua, arraza, erlijio, herritartasun, iritzi politiko edota gizarte talde jakin bateko kide izateagatik jarraitua izatearen beldur fundatua edukitzearen ondorioz, bere jaioterritik kanpo joan eta bueltatu ezin den pertsona da edo beldur horiengatik bere herriaren babespean geratu nahi ez duena. Horrela, Errefuxiatuaren estatutua eskatzen duten pertsona guztiek jarraituak izatearen beldurra justifikatu behar dute, estatutua lortzeko arrazoia objektiboa izan behar delarik (Ginebrako Hitzarmena, 1951).

Immigrante eta errefuxiatu terminologiari dagokionez, gehienetan, populazio migratzaileari kalifikatzaile ekonomikoa gehitzen zaio eta populazio errefuxiatuari, berriz, politikoa. Hala ere, populazio migratzailea eta errefuxiatuaren arteko funtsezko desberdintasuna, erabakiak hartzeko askatasunean dagoela esan liteke: borondatezkoa edo ez borondatezkoa, eta kolektibo bakoitzak bere herrialdera integritate baldintzetan itzultzeko duen aukera (edo ez) (UNCHR, 2016). Gainera, askotan migrazio irregularra mugen kontrola, segurtasuna eta migrazioaren kudeaketa alorrekin lotua izan da.

Azken urteetan babes eskaeren igoera egon den arren, asilo kontzesioak ez dira honekin batera areagotu. Espainiak 2017. urtean babes internazionala eskatzen zuten 31.120 pertsona jaso zituen, inoiz baino kopuru handiagoa, hala ere, zifra honek ez du Europar Batasunean sartu ziren pertsonen %4.4 besterik suposatzen. Gainera, jasotako pertsonen artean 595-ri eman zien Errefuxiatu estatutua eta %65ari eskaera ukatu zion (CEAR, 2018).

Europak 2016an pertsona errefuxiatuak jasotzeko hartutako konpromisoa ez da bete, eta bigarren mundu gerran bizitako giza ezbeharraren pareko dramaren aurrean gaudela erakusten dute datuek. Europako Batzordeak 2017ko martxoan aitortu zuen hasiera batean jaso behar zituen 160.000 lagunaren %25 jasoko zituela azkenean; EB-eko pisu ekonomiko eta politikotik asko aldentzen den proportzioa. Era berean, Europako Batasunak Schengen guneko mugetako kontrolak zorroztean jarri du indarra. Horrek areagotu egin ditu berehalako itzultzeak, mugen externalizazio prozesuak eta hirugarren herrialde batzuekin egindako itunak. Herrialde horietako batzuk, gainera, giza eskubideen babeserako konpromiso lausoa dute; horren adibide da Europar Batasunak eta Turkiak sinatutako akordioa (CEAR, 2018). Besteak beste, harrerarako eskubidea urratzea ekarri baitu itun horrek. Harrera herrialdeetan migrazioa kontrolatzera bideratutako neurriek ondorio zuzenak dituzte populazio desplazatuarengan, horrela, 2016. urtean Europar Batasunean babesa eskatu zuten pertsonak 1.259.265 izan baziren, 2018-an 638 milara jaitsi zen kopurua (CEAR 2018; Eurostat 2019).

Babes eske datorren pertsona kopuruak behera egin duen arren, iristen diren harrera eta integrazio arrakastatsu eta integrala eskaintzea mundu osoko herrialdeek izan beharko luketen lehentasuna litzateke. Horregatik, lurralde ezberdinetan iritsi berrien integrazio sozial, politiko eta ekonomikoa bermatzeko politika eta soluzioak garatzeari ekin diote. Integrazio esfortzu hauek jendarteko instituzio eta aktore sozial ezberdinen elkartzea dakarte: agintari publikoak, hainbat agentzia publiko, ongizate sozialeko erakundeak, langileak, boluntarioak, migranteak... (Hesse, Kreutzer, eta Diehl, 2018).

Euskal Herriaren kasuan, Frantziar eta Espainiar estatuen arteko mugan aurkitzen den lurraldea izanik, penintsularen hegoaldeko kostetara iristen diren etorkin asko hurbiltzen dira muga pasatu nahian. Euskadiko instituzioek 2018ko ekainetik 6.500 pertsona jaso dituzte, gehienak trantsituan zeuden pertsonak dira baina hemen gelditzea erabaki dutenak ere badaude (“Euskadi”, 2018). Asilo eskaerei dagokienez, CEAR Euskadik 2017. urtean 970 asilo eskaera egon direla uste du, 592 Bizkaian, 258 Araban eta 151 Gipuzkoan (Makazaga, 2018).

Lan honen helburua populazio errefuxiatuak harrera herrialdeetan bizi duen egoera eta integrazioarako zailtasunak ikustaraztea da. Aldi berean, alor honetan instituzioen papera, integrazio politiken beharra, jendarte zibilaren garrantzia eta gizarte hartzailearen erronkak azaleratuko dira. Helburu hau lortzeko berrikuspen teorikoa egingo da Web of Science eta Psycinfo datu baseetan hurrengo hitz gakoak erabiliz: *Refugees, reception, well-being, programme, host society, settlement, integration, policy, welcome, civil society* etb. Psikologiako datu baseez gain, gaian adituak diren nazioarteko erakundeen txostenak ere behatuko dira. Errefuxiatu eta immigranteen ezberdintasunak ahaztu gabe, amankomunean dituzten elementuetan erdiratuko gara, toki berri batera iristean topatu ditzaketen erronkei aurre egitea besteak beste. Hau dela eta, gure gertuko testuinguruan, Gipuzkoan, herritarren artean sortutako Harrera Sareen esperientzia aztertuko da, hauek Espainiako Hegoaldetik datozen etorkinekin lan egiten baitute eta zenbait kasuetan asilo eskatzaileekin ere. Honetarako Irun eta Donostiako Harrera Sareetako boluntarioen ahotsak ekarriko dira 5 elkarrizketa erdi-egituraturen bitartez, hemendik lortuko ditugun ikaskuntzak populazio errefuxiatuarekin lan egiteko erabilgarriak izan daitezkeelakoan.

## MARKO TEORIKOA

### 1. Populazio errefuxiatuaren egoera harrera herrialdeetan

Errefuxiatu eta etorkinek jatorrizko herrialdean eta migrazio ibilbidean zehar hamaika zailtasun eta oztopori aurre egin behar izan dioten arren, helburu herrialdera iristean oraindik ere integrazioaren erronka dute gainditzeko. Zehazki, Medecins Sans Frontières (2016) erakundeak aurrera eramandako ikerketan, etorkinek migrazio ondorengo bizitzan izan ditzaketen zailtasunak zerrendatu ziren, haien artean: etorkizunari beldurra eta zalantzagarritasun sentimendua, gatazkak migrazio zentroetan, asilo eskaera ukatzearen beldurra, utzikeria sentimendua, integrazteko eta integratua sentitzeko zailtasuna, eguneroko

egitekoen falta, bakardade eta aspertze sentsazioa, eta gradu baxuagoan, injustizia eta gertaerak kontrolatzeko gaitasun ezaren sentimendua. Honetaz gain, ikerketaren arabera migrazio bidaian zehar bizitzako zailtasunek estres post traumatiko eta depresio motako nahasteak garatzea ekar dezakete.

Honek guztiak harrera herrialdean populazio errefuxiatuaren baldintza sozial zaugarria azaltzeko balio du. Espainiar estatuko pertsona errefuxiatuen inguruko ikerketa asko ez dauden arren, Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe (2018) eta Iglesias-Martínez eta Estradaren (2018) ikerketek populazio honen arrisku faktoreak azaltzen dituzte.

Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe-ren (2018) kasuan, hezkuntza, enplegua, etxebizitza eta estatus sozial eta laboralean erdiratzen da. Honen arabera, errefuxiatuen artean hezkuntza arloan, tituluen homologazioa eta formakuntza zikloetara sarbidea lortzeko zailtasunak aurkitu dira, baita etxebizitza topatzeko ere. Gainera, enpleguari lotuta, errefuxiatuen artean prekarietate egoera larria dagoela ikusi da, pertsona hauek formakuntza akademiko egokia izan dezaketen arren, kualifikazio baxuko lanak egiten bukatzen baitute, prekarietatea eta behin-behinekotasuna nagusi izaten diren lan eremuetan; gainera, igoera sozialeko aurreikuspen falta antzematen da. Bestalde, emaitzen arabera gaztelania hizkuntzaren gabezia arrisku faktore garrantzitsua izan daiteke.

Iglesias-Martínez eta Estradaren (2018) ikerketari dagokionez, arrazakeria eta bazterkeria etnikoa errefuxiatuen zaugarritasuna ulertzeko beste faktore bat dela azpimarratzen da. Gizarteak errefuxiatu eta etorkinak irudikatzeko erabiltzen dituen aurreiritzi negatibo eta etiketa etniko debalatuak alor ezberdinetan erabiliak izaten dira beren baldintza prekarioak justifikatzeko. Honekin batera, autoreek generoa desparekotasun sozialaren iturri garrantzitsu bat dela goraipatzen dute. Hala, generoaren inguruko estereotipo asimetrikoak eta etxetik kanpo, nahiz etxean, emakumeen lanaren inguruko sinesmenek emakume errefuxiatuen etxeko egoera, egoera laboral eta soziala baldintzatuko dute. Bestalde, ikerketan, harrera herrialdeetan babes sozialeko sareen ahultasuna aipatzen da arrisku faktore bezala. Sare hauek kapital sozial modura jokatu dezakete integrazio sozialari dagokionez, oinarrizko baliabideen irisgarritasuna bermatzen baitute: informazioa, enplegua, etxebizitza, etxeko laguntzak, babes emozionala, etab. Horrela, errefuxiatuek beraiek sare hauek baloratzen dituzte helburu kokalekua aukeratzeko orduan. Ikerketaren arabera, Espainiaren kasuan, errefuxiatuen sare sozialak beren herrialdeetako errefuxiatu eta migrante “ekonomiko”z osatzen dira edota harrera dispositiboetan ezagututako pertsoez.

Bestalde, aipatzekoa da Europako herrialde gehienei asilo eskaeraren prozesua oso konplikatu izatea egotzi izan zaiela eta estatusaren zain egotea integrazio prozesuan muga handitzat hartu izan dela (Mestheneos eta Ioannidi, 2002).

## 2. Errefuxiatuak eta integrazioa harrera herrian

Pertsona desplazatuek zailtasun eta erronka hauei aurre egingo diete erresilientzia pertsonala, aurre egite gaitasuna eta jasotzen duten babes edo laguntza sozialaren arabera (Sleijpen, June Ter Heide, Mooren, Boeije, eta Kleber, 2013). Honen harira, kontuan hartzekoa da, integrazio arrakastatsuek eragin zuzena duela errefuxiatu eta lekualdatuen ongizatean baita aurretiko traumaren moderazioan (Hynie, 2017; Li et al., 2016).

Integrazioa definitzerako orduan ikerketa gehienak iritsi berriengan ematen diren aldaketetan erdiratzen diren arren, integrazioa, bai harrera komunitatean, bai etorkinengan, baita bien arteko harremanean ematen den aldaketa prozesua da (Castles et al., 2002; Omidvar eta Richmond, 2003; Strang eta Ager, 2010). Wong eta Solomon (2002) autoreek integrazio komunitario kontzeptua proposatu zuten, dimentsio ezberdinez osatuta egongo litzatekeena: (a) *integrazio fisikoa*: baliabideen erabilera eta komunitateko eginkizunetan parte-hartzea; (b) *integrazio soziala*: komunitateko beste kideekin interakzio eta konpromisoa; eta (c) *integrazio psikologikoa*: pertenezia sentimendua garatzea. Ager eta Strang-ek (2008) azkeneko dimentsio bat gehitzen diote integrazio kontzeptuari, *egokitze instituzional*arena hain zuzen, zeinek errefuxiatuekin harremana duten instituzio eta erakundeek beren beharrak errekonozitu eta hauetara egokitzeari egingo liokeen erreferentzia (dokumentazio formala lortzeko eskuragarritasuna edo interpretazio zerbitzuen beharra, adibidez).

Aipatzekoa da ikerketa ezberdinek populazio errefuxiatuak jendartean aktiboki parte hartu eta bertan integratzeko nahia duela azaldu dutela. Hala ere, taldeen arteko interakzioan garrantzitsua da talde bakoitzak integrazioa nola ulertzen duen kontuan hartzea, eta batez ere, harrera gizartearen disposizioa zein den jakitea (Berry, 1990; Roblain, Malki, Azzi eta Licata, 2017). Hainbat ikertzailek integrazioa harrera gizartea irekia eta aniztasun kulturalari bideratutakoa denean bakarrik hautatua izan daitekeen estrategia dela adierazi dute (Berry, 2011). Aldiz, eskusiorantz jotzen duten gizarteetan estereotipo eta mehatxu sentimendu indartsuak aurkitu izan dira, horrela, endotaldearen pertzepzioa exotaldeko kideek bertako balioak eta baliabideen eskuragarritasuna mehatxatzen dituztela da (Silva, Oliveira, Dias, Pinto eta Marques, 2018).



Aldi berean, modu orokorrean frogatua izan da etnia edo arrazagatiko diskriminazioak ondorio larriak izan ditzakeela errefuxiatuena bezalako talde gutxituen ongizate eta osasunean, depresio sintomak eraginez eta autoestimu pertsonal eta kolektiboaren eraikuntzan (Branscombe, Schmitt eta Harvey, 1999; Turjeman, Mesch eta Fishman, 2008). Gainera, distantzia kulturalak eta estatus sozial baxuak gutxiengo etniko batzuen integrazioa zailtzen du (Ward, Bochner eta Furnham, 2001). Aitzitik, errefuxiatuekin eman daitezkeen gaizkiulertuak askotan ezjakintasun, etsaitasun edo aurreiritzien ondorioz gertatzen direla pentsatzen den arren, hainbat ikerketek jarrera paternalistek ere errefuxiatuen arteko tentsio eta mesfidantza areagotu dezaketela proposatzen dute (Bose, 2018).

Ikuspegiri (2018) esker, Immigrazioaren Euskal Behatokia, euskal gizartearen etorkinekiko iritzi eta jarrerak ezagutu ditzakegu eta errefuxiatuekiko zehatza ez den arren antzeko jarrerak itxaron daitezke talde honekiko. Txostenak jakinarazi zuenez, aurreko urteekin konparatuta etorkinen ekarpen globalen inguruko ikuspegia arinki positiboagoa da 2018. urtean. Izan ere, azkeneko hiru urteetan, etorkinen efektuak positiboak direla pentsatzen duten pertsona kopuruak kontrakoa pentsatzen dutenena gainditzen du.

### **3. Instituzioen papera eta integrazio politiken beharra**

Errefuxiatuekiko jarrerak populazio honek komunitateko beste kideekin harreman berriak sortzeko duen gaitasunean, baita instituzioek haien beharrak asetzeko duten prestutasunean eragin dezakete. Izan ere, jarrera publikoek eztabaida politikoa eta politika instituzionalak determinatzeko indarra dute (Bansak, Hainmueller eta Hangartner, 2016). Modu berean, integrazio politika inklusiboagoak etorkinekiko jarrera positiboekin lotu izan dira, bi norabideko zikloa sortuz (Callens eta Meuleman, 2017). Beraz, errefuxiatuen integrazio gaitasuna beren testuinguru sozial eta materiala baldintzatuko duten politiken arabera izango da, hauek integrazioaren alor funtzionalengan, baita zeharka bada ere, testuinguru sozialean eraginen dutelarik abegikorragoa egiteko edo ez.

Ager eta Strang -ek (2008) politiken garapenean integrazioaren seinale diren lau arlo proposatzen dituzte: enplegua, etxebizitza, hezkuntza eta osasuna. Lotura sozialak ere dimentsio garrantzitsua dira eta hizkuntza, ezagutza kulturala, segurtasuna eta egonkortasunari esker lortzen dira. Azkenik, integrazioaren oinarrian eskubide eta hiritartasuna daudela defendatzen dute.

Bukatzeko, migrazio behartuen tradizioan populazio errefuxiatuaren integrazioan bi momentu ezberdintzen ohi dira. Lehenengoak harrera prozesuarekin zerikusia du: errefuxiatuen egokitzea gizarte berrira eta honen instituzio nagusietara. Bigarren momentua epe luze-erdiko integrazio sozialarekin lotzen da, zeinetan errefuxiatuak bizitza komunitarioaren eta lan merkatuaren parte egitera pasatuko liratekeen. Etapa honetan politika sozial eta integrazio politikak ezinbestekoak bihurtzen dira goranzko mobilitate soziala sustatzeko (Iglesias-Martínez eta Estrada, 2018).

### **3.1. Integrazio politikak gobernuko maila anitzetan**

Atal honetan integrazio politikak garatzerako orduan hiriek hartu duten garrantzia azpimarratuko da Europako hiri ezberdinen adibideak emanez, ondoren, ikuspegia zabalduz nazio mailako inizatibak azalduko dira eta azkenik Australiaren kasura hurbilketa egingo da. Izan ere, errefuxiatuen harrera sustatzeko programa asko dauden arren, gutxi dira ebaluatuak izan direnak eta kasu Australiarra hauetako bat da.

Europako hainbat herrialdetan gertatu den errefuxiatu eta etorkinen iritsieraren areagotzeak erronkak suposatzen ditu gobernuko maila ezberdinetan, bai lehenengo harrera eman behar duten herrialdeetan, baita trantsitu eta helburu herrialdeetan ere (UNESCO, 2016). Honen aurrean, kasu askotan administrazio autonomiko, probintzial eta munizipalek tokian tokiko beharrei erantzun bat ematearren, beren marko propioak sortzen dituzte, batzuetan Estatuaren orientazio politikoaren aurkakoak ere izaten direlarik (Scholten eta Penninx, 2016).

Izan ere, agintari lokalak errefuxiatu eta etorkinen harrera eta integrazioaren lehenengo ilaran daude. Zerbitzu eta azpiegiturak kudeatzeko erantzukizuna daukate, bai bertakoentzat baita iritsi berrientzat ere; errefuxiatu eta etorkinengana heldu eta hauek erakartzeko hurbiltasuna dute; iritsi berrien harrera eta integrazioarako lehentasunak identifikatzeko gaitasuna izan beharko lukete eta eremuko behar eta erronken neurriko politikak diseinatu (UNESCO, 2016). Gainera, badakigu errefuxiatuek, etorkinek bezala, bere burua hiriarekin nazioarekin baino identifikatuagoa sentitzen dutela (Scholten eta Penninx, 2016).

Egoera honek integrazio politiken inguruko ikuspegi anitzak garatu ditu hiri Europar ezberdinetan. Rotterdam-en adibidez, integrazio politikak lan eremura eta hezkuntza politiketara bideratzen dira, Amsterdam-en ordea, harremanak eta kulturarteko topaketak sustatzean erdiratzen dira (Scholten, 2013). Halaber, Amsterdamen, errefuxiatuen aurrekarien berrikuspena eta integrazioa azkartzeko kasuen kudeaketa indibidualizatuko programa garatu da. Normalean baino kasu gutxiago dituzten administratzaileek kudeatzen dute eta parte

hartzea, enplegua, hezkuntza, osasuna eta hizkuntza barne hartzen ditu. Arauak oso azkar aldatzen diren eta aktore asko barneratzen dituen gobernazio sistema konplikatu batean, kasuen kudeaketa indibidual honek integrazio esfortzuen koordinazioa eta integrazio emaitza hobekiak ekar ditzake (Scholten et al., 2017).

Bartzelonaren kasuan, udaletxeak 90. hamarkadan inklusio sozialeko plan integrala sustatzeko politikak garatu zituen, plan hauek dimentsio estruktural, kultural, sozial eta zibiko politikoak barne hartzea zuten helburu (Garcés-Mascareñas, 2014). Azken urte hauetako larrialdi egoerak, politika eta programa berriak eskatzen ditu, hala nola, Programa Català de Refugi bezalako programak, hiritarrekin, gizarte zibilarekin eta mundu lokalarekin errefuxiatuen inklusio sozial eta laboralean lan egiteko da (Generalitat de Catalunya, 2017). Genero ikuspegi batetik, genero bazterkeriagatik beren etxeetatik alde egin zuten LGTBI errefuxiatuentzat 2 etxebizitza eskaintzen dira hiriburu kataluniarrean (UNESCO, 2016).

Euskadin ere errefuxiatuen harrera sustatzeko “Herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren esparruan jarduteko V. plana”-ren barruan, *Patrocinio Comunitario* izeneko programa garatzeari ekin zaio. Izan ere, 2019an martxan jarritako proiektu pilotu horretan Jordania eta Turkiako errefuxiatu zelaiaetatik hainbat familia artatu dira Euskadin. Programa honetan komunitatearen, GKE-en eta tokiko agintarien inplikazioa ezinbestekoa da, hiritarrak baitira laguntza ekonomikoa, emozionala eta soziala eskainiko dutenak lehenago ezarritako denboran (“El proyecto del Gobierno Vasco”, 2018).

Maila nazionalean esperientzia lokal hauek bateratzeko esfortzuak egin izan dira. Alemaniak, zehazki, maila anitzen artean integrazio politikak koordinatzeko espazioak erraztu ditu. Integrazioaren inguruko konferentzia nazionalek paper garrantzitsua dute, hauek integrazioaren sustapenean lan egiten duten gobernu maila ezberdinak zein gobernu kanpoko aktoreak elkartzen baitituzte indarrak bateratzeko (Scholten eta Penninx, 2016).

Europatik kanpo ere pertsona errefuxiatu eta etorkinen iritsierak politika bereziak sortzera eraman ditu. Australiaren kasuan, 2 osagai dituen urte beteko Programa Humanitarioa diseinatu zen. Programa hau ebaluatua izan zen heinean zehaztasun gehiago emateko aukera uzten du. Lehenengo osagaia, Babes Programa litzateke eta dagoeneko Australian dauden eta errefuxiatu bezala errekonozituak diren pertsonen zuzendutakoa da. Bigarrenik, Finkatze Programa dago, UNHCR bidez bideratzen dena. Australian errefuxiatu eta asilo eskatzaileen zerbitzuak gobernu zein gobernu kanpoko erakundeek kudeatzen dituzte. Gainera, errefuxiatuek finkapenera zuzendutako zerbitzuak erabili ditzakete lehenengo urtean zehar. Programa honek iritsieran harrera eta asistentzia eskaintzen ditu (aireportu edo estazioan

harrera, ostatura eraman, ostatuko kostuak, orientazioa, larrialdi medikuak eta arropa zerbitzua); informazioa eta erreferentziak (laguntza, osasun zerbitzuak, ingeles klaseak eta lanbide zerbitzuak eskaintzen dituzten gobernu agentzien inguruan); etxebizitza zerbitzuak eta elikadura eta higiene sorta bat lehenengo egunetarako. Gainera, trauma eta tortura lantzeko epe motzeko terapia ere barneratzen da programan. Hala ere, ebaluazioaren arabera, hainbat arlo hobetzeke gelditzen dira, hauen artean enplegua eta etxebizitza lortzea (Fozdar eta Hartley, 2013).

### **3.2. Gizarte zibilaren papera**

Bestalde, garrantzitsua da tokiko irabazi-asmorik gabeko erakunde eta karitateek sustatutako proiektu eta inizatibak aipatzea. Adibidez, “Refugees Welcome” nazioarteko inizatibaren sekzio italiarra: errefuxiatu eta babes humanitarioa jasotzen duten pertsonentzako ostatu eta etxebizitza pribatuak sustatzen dituen taldea da (Scholten et al., 2017). Gainera, Katalunian (Alarcón et al., 2018), zein Gipuzkoan, SOS arrazakeriaren eskutik, (Bernal, 2019) mentoretza eta harreman komunitarioak sortzeko programak bideratzen hasi dira. Literaturak mentoretza errefuxiatuen kokatzean lagundu dezakeen tresna eraginkorra dela erakutsi du. Konfiantza eraikitzen laguntzen du, komunitate zabaleko bizitzarekin konpromisoa hartuaz eta identitate kultural eta indibidualak garatuaz (Alarcón et al., 2018). Australiaren kasuan, boluntarioek landa eremuetan baliabide gutxiko gobernuaren eta komunitateko zerbitzuen arteko hutsuneak betetzen lagundu dute (Sawtell, Dickson-Swift, eta Verrinder, 2010).

Orokorrean, gizarte mailako erakundeak (etorkinez osatuak edo ez), nahiz hiritarrak indibidualki, integrazio prozesuetan osagai garrantzitsua dira. Izan ere, ikerketa ezberdinek baieztatu duten bezala, gizarte zibilaren eta GKE-n papera giza eskubideen gainbegiratzean ezinbestekoa da eta gobernu mailako instituzioek bete ezin ditzaketen funtzioak ditu. Europako Kontseiluak gizarte zibilaren ekarpen zehatzak zerrendatu zituen: giza eskubideen urratze indibidualak salatzea; asistentzia zuzena ematea eskubideak urratuta izan dituen pertsonari; presioa sortzea maila nazional, eskualdekoan eta internazionalen lege aldaketak eskatuz; eta populazioaren artean giza eskubideekiko ezagupena eta errespetua sustatzea (Europako Kontseilua, 2017). Horretarako, GKE-n presentzia erraztea ezinbestekoa da eta hau agintaritzaren nazional eta lokalen esku egongo da (DeBono, 2018).

Hala ere, kontuan hartzekoa da boluntariotzaren inguruko ikerketek estatus ezberdineko taldeen artean asistentzia ematearen inguruan ondorioztatu dutena, izan ere, aurreko kasua laguntza ematen duten horien dominantzia soziala indartzeko modu bat bihurtu liteke (Nadler, 2002). Botere gutxiago duten taldeek askotan estatus altuagoa duten taldeen asistentzia

onartzen duten arren, harremana laguntza honen natura eta motibazioen arabera izango da. Eskaintako laguntza dependentziara bideratzen denean; hots, soluzioak ematen badira, hartzaileak bere soluzio propioak bilatzera bultzatu beharrez, asistentziak taldeen arteko ezberdintasuna indartu lezake (Nadler eta Chernyak-Hai, 2014).

Gizarte zibilaren parte hartzeari oso lotuta elkartasunaren kontzeptua dago. Anthias-en (2013) arabera, elkartasuna etorkizun komun bat eraikitzean datza, sinesmen, balio edo bizitza estilo ezberdinak alde batera utziz. Etsai komun bat izateak sortuko luke elkartasun hori, akziorako identitateak sortuz, jatorri edo kultura berdinean oinarritutako identitateak sortu beharrez. Gainera, autore honen arabera, elkartasunaren kontzeptua interkulturalitatearen kontzeptuarekin lotu daiteke. Interkulturalitatea adierazpen kultural ezberdinetan, zein baliabideen banaketan ematen den asimetriaz arduratzen da. Elkarrizketatik haratago mugitzeko eta teoria praktikan jartzeko aukera daukan interkulturaltasuna, modu ez hierarkiko batean hitz egiteko espazio komun bat eraikitzeko gai dena da. Ezberdintasunak alde batera utziz, gatazka sozialaren, arrazakeriaren eta menpekotasunaren oinarriari arreta jartzen diona. Elkartasunak bezala, interkulturalitatearen formulazio horrek bestearekin berdintasun baldintzetan konprometitzea dakar. Bestalde, Voutira-ren hitzetan (2003) errefuxiatu iragan bat duen herrialde batean, oroimen kolektiboak elkartasun eta sinpatia sentimenduak sortarazten ditu pertsona lekualdatuekiko.

Euskal Herrian ere, herritarren artean harrera duin bat eskaintzeko sareak eraikitzen hasi dira. Gipuzkoan, bai Irunen, baita Donostian ere, Harrera Sareak 2018ko udatik daude lanean, Espainiako hegoaldetik iristen ziren etorkin eta errefuxiatuen beharrak asetzeko instituzioen baliabideak nahikoak ez zirela ikusi zenetik. Gipuzkoa Espainiar eta Frantziar estatuen mugan kokatzen den lurraldea izanik, orokorrean trantsituan dauden pertsonekin lan egiten da, baina epe ertainerako helburua pertsona etorkin eta errefuxiatu guztiei bideratuta dago (Hiritarron Harrera Sarea, 2018). Bilbon ere, Ongi etorri errefuxiatuak herri mugimenduak, auzokideen laguntzaz, behin behineko harrera espazio bat, akonpainamendua eta laguntza eskaini dizkie iritsi berriek, gainera, bertan gelditu direnekin integrazioa sustatzea dute helburu (Barcenilla, 2018).

#### **4. Gizarte hartzailearen erronkak**

Lehenago aipatu bezala, Afrika, Asia eta Ekialde Hurbileko leku ezberdinetatik etorritako errefuxiatu olatuak hainbat komunitateetako demografia, eta bizitza sozial eta politikoa

aldatzea eragin du (Bose, 2018; Coughlan, Stam, eta Kingston, 2016). Iritsiera berri hauek hamaika erronka suposatu dituzte harrera komunitateetan, hizkuntza, arau kultural, tradizio erlijioso, gaitasun eta espektatiba berriak ekarri dituztelarik. Aldi berean, hiri txikietara heldutako errefuxiatuek ezezaguna den ingurune batean nabigatzen aurkitzen dute bere burua eta askotan, beren beharrei aurre egiteko prest ez dagoen testuinguruak izaten dira hauek. Errefuxiatuen beharren eta harrera hirien gaitasun eta baliabideen arteko desdoikuntza horrek integrazioan eta gizarte zerbitzuetan presioa areagotzea ekar dezake (Lee, Choi, Proulx, eta Cornwell, 2015).

Migrazioaren Nazioarteko Erakundeak (2015) hiriek errefuxiatu eta etorkinen etorreraren aurrean topatzen zituzten erronkak identifikatu zituen: hizkuntzaren muga; muga legal eta administratiboak; sare sozialetara irisgarritasun baxua, lekuko testuinguru sozialaren ezagupen urria; lan merkatura egokitzen ez ziren gaitasunak; eta diskriminazioa, xenofobia eta errepresentazio eza. Halaber, hiri eta gobernu lokalek etxebizitza, hezkuntza eta enplegua aipatzen dituzte zailtasuna nagusi bezala. Arreta berezia merezi duen beste desafioetako bat errefuxiatuen integrazio sozial eta kulturala sustatzea da. Gainera, hirietako administrazioek nazio mailako administrazioaren menpe daudela aipatu izan dute, legalki, materialki eta finantziarioari begira (UNESCO, 2016).

Bestalde, hiri eta harrera herrialde guztien esperientziek lankidetzaren eta kolaborazio estrategien garrantzia azpimarratu dute, gobernu kanpoko/ gizarte zibileko erakundeekin, nahiz sektore pribatu eta boluntarioekin. Hala ere, honek zalantzak eta oztupoak ere sortu ditu hainbat autoreren iritziz. Alde batetik, irabazi-asmorik gabeko erakundeen prestakuntza eta entrenamendua (Sawtell, Dickson-Swift, eta Verrinder, 2010), baita lan egiten duten populazio anitzaren beharrei erantzuteko baliabide nahikorik izatea ere zalantza jarri izan dira (Hume eta Hardwick, 2005). Fozdar eta Hartley-k (2013) azaltzen duten bezala aktore ezberdin askoren parte hartzeak hauen arteko koordinazioa zailtzen ohi du. Bukatzeko, erronken artean oso garrantzitsua den bat komunitateko kideek etorkin eta errefuxiatuekiko dituzten jarrerak aldatzea da, bazterkeria eta diskriminazioa ezabatuz (Fozdar eta Hartley, 2013; UNCHR, 2013).

## **GIPUZKOAKO HARRERA SAREAK: PARTE HARTZAILEEN AHOTSAK**

Irun eta Donostiako Harrera Sareetan parte hartu duten boluntarioen testigantzak 5 elkarriketa erdi-egituraturen bitartez jaso dira. Honi esker Harrera Sarearen ibilbidea

marrastu eta honen sorreraren zergatiak eta antolakuntzaren nondik norakoak ezagutu ahal izan dira. Lan honetarako interesgarriak izango diren gaiak ere agertu dira, izan ere, Harrera Sareak etorkinekin egiten duen lanak populazio errefuxiatuaren harreran agertu daitezkeen muga eta erronkak gainditzeko lagundu diezaguke. Gai hauek hiru ardatz nagusitan banatu dira: iritsi berrien zaugarritasun egoera, elkartasunaren indarra eta erronkak Harrera Sarearen ibilbidean.

### **1. Iritsi berrien zaugarritasun egoera: asetu gabeko beharrak eta sortzen diren beldurrak**

Gipuzkoara iristen diren pertsonak egoera ezberdinetan aurkitzen dira; gehienek helburua muga zeharkatu eta Frantziara pasatzea da bere bidaiarekin jarraituz, beste batzuek ordea, bertan gelditzeko erabakia hartzen dute. Bien kasuan hainbat beldur eta asetu gabeko behar identifikatu dira. Parte hartzaile gehienek iritsi berrien desorientazioa eta informazio falta aipatu dituzte, bai kokalekuaren inguruan, bai Espainiar eta Frantziar estatuen mugaren egoeraren inguruan, baita eskuragarri dituzten zerbitzuen inguruan ere. Testigantzen arabera, askok asiloa eskatzearen aukera ezezaguntzat dute, baita asilo sistemaren nondik norakoak eta eginbeharrekoak. Horregatik, boluntarioek informazio guzti hau ezagutarazteko esfortzuak egiten dituzte.

“Irunek dituen mugetara iristen dira, Hendaia eta Urruñara, poliziak bertatik bidaltzen dituelako Irunera. Hara gerturatzen gara eskaini ahal dieguna azaltzeko eta garrantzitsua iruditzen zaigun informazioa emateko: dutxatzeko eta jateko dituzten azpiegiturak, arropa berria nola lortu, espazio fisikoa kontuan hartzeko, muga berri emateko, garraio bideen inguruan informatzeko, Frantzia haientzat oso gertu eta aldi berean oso urrun zegoela jakinarazteko...” (Iruneko Harrera Sareko boluntarioa, 2018ko urria).

Bestalde, oinarrizko beharrak ere asetzeke izaten dituzte, jana, loa, aterpea, arropa baita osasun egoerarekin zerikusia duten beharrak ere, asko gaixo iristen baitira. Migrazio bidaian zehar bizitako zailtasunek eta momentuko utzikeria, ezjakintasun eta zalantza sentimenduek etorkinen artean behar psikologiko garrantzitsuak sortzen dituzte. Defentsa mekanismo moduan konfiantza ezarekin jokatzeko dute.

“Ez da bakarrik otorduak egitea edo lo egiteko tokia eta hizkuntza berri baten ezagupena, karga psikologiko handiarekin datoz eta arreta terapeutikoa behar dute. Hori lehenengo gauza izan beharko litzateke haien bizitza arriskatzeko gai izan direlako jatorrizko bizilekuan dituzten egoerarengatik” (Donostiako Harrera Sareko boluntarioa, 2018ko urria).

Dokumentazioari dagokionez, etorkin gehienak legearen aurrean egoera irregular batean aurkitzen dira eta honek internamendu zentroetara sartzearen edo beren herrialdeetara bidaltzearen beldurra eragiten ditu. Paperik ez izate horrek aldi berean, beren herrialdeetatik dirua jasotzeko zailtasuna sortzen du besteak beste. Bertan gelditzea erabakitzen dutenentzat muga administratibo eta legalak suposatu ditzake: egoera erregularizatzeko zailtasuna, edota etxebizitza eta enplegua lortzeko mugak.

“Hemen geratu nahi dutenen behar handiena, ordea, legea aldatzea da, bestela 3 urtetan zehar ez daukate eskubiderik ezertarako, ezta lana egiteko ere. Gainera, bere jatorrizko herrialdera deportatzeko mehatxuarekin bizi behar dute” (Donostiako Harrera Sareko boluntarioa, 2018ko urria).

## **2. Elkartasunaren indarra: hutsuneak bete, instituzioei presioa, integrazioa, salaketa eta herritarren sentsibilizazioa**

Elkarrizketetan elkartasuna aipatu da Harrera Sareen lorpenetako bat bezala. Izan ere, sarea osatzen duten pertsonen profila anitza izan arren, helburu komun batek elkartzen ditu eta taldean parte hartzeak identitate berri bat sortu du, adin, jatorri eta ideologia ezberdinak alde batera utziaz. Gainera, sarearen antolakuntza berdintasunean oinarritzen da eta modu ez hierarkiko batean lan egiten da. Erabakiak asanbladetan hartzen dira pertsona ororen iritzia kontuan hartzen delarik.

“Elkartasun jarrera dagoela ikusi dugu, jende ezberdina elkartu garelako helburu bat lortzearen, etorkinen harrera alegia. Batzuk beste erakundeetan, beste arloetan lan egiten aritu dira beren bizitza osoan zehar. Beste batzuk, aldiz, ez dute ezer egin orain arte, baina gerturatu dira. Baina denoi batzen gaitu elkartasun berdinean hori ” (Irungo Sareko boluntarioa, 2018ko udazkena).

Sareko kideak batzen dituen helburu komun honen barruan instituzioek betetzen ez dituzten eginbehar edo hutsuneak betetzea legoke. Izan ere, etorkinen oinarrizko beharrak asetu gabe ikusi dira eta herritarrek hauei asistentzia zuzena eman ahal izan diete aurkitzen ziren tokietara hurbilduaz (tren edo autobus geltokiak adibidez). Parte hartzaileak ados daude sarea ez litzatekeela existitu behar, instituzioek bete beharko luketen lana egiten duelako eta horregatik sarearen funtzio garrantzitsuetako bat instituzioak presionatzea izan dela, hutsune horien aurrean baliabide gehiago sortzeko. Horretarako gizarte zibilaren babesa bilatu dute manifestazio eta salaketa modu ezberdinen bitartez.

“Lorpen batzuk izan ditugu. Adibidez, hasi ginenean etorkinak kalean zeuden, geltokiko iskina batean lo egiten zuten. Orain badute lo egiteko lekua, baita bazkaltzeko lekua ere.



Guzti hori Harrera Sareak egindako presioarengatik izan da, ni horrekin geratuko nintzateke. Hau da, egin dugun presioarengatik, lortu diren hobekuntzak” (Irungo Harrera Sareko boluntarioa, 2018ko udazkena).

Salaketa giza eskubideen urraketaren inguruan ere egin da. Izan ere, azken urteetako mugimendu migratzaileek mugen kontrola areagotzea eragin dute, muga gurutzatu nahi duten etorkinekiko errepresioa handituz eta giza eskubideen kontrako ekintzak areagotu direlarik.

“Salatzen dugu giza eskubideen aurkako ekintzak egiten ari direla eta arrazistak direla; azkenean frantziar poliziak gelditzen duen jendea beltza da edota itxuraz zuzenki afrikarra edo ekialde hurbileko itxura bat izan zezakeena” (Irungo Sareko boluntarioa, 2018ko udazkena).

Sareko boluntarioak kaleko herritarrak diren heinean, instituzioek bete ezin dezaketen funtzio bat dute: etorkinei hurbiltasuna eta laguntasuna eskaintzea. Gainera, inguruko herritarrak inplikatzan dizuten ekintzak antolatzen dira: futbol partidak, elkartasun bazkariak eta tailer ezberdinak. Honek guztiak bertan gelditzen direnen integrazioa errazten du, lotura sozialak eta laguntza afektiboa garatzeko espazioak sortzen baitira.

“Beraz, beraien oinarrizko beharrak asetzeaz aparte, konpainia egiteko taldeak sortzen ditugu. Adibidez, gaztetxeak dinamikak antolatzen ditu eta egunean zehar egitekoren bat izatea bultzatzen dugu. Hau haien integrazioa errazteko baliagarria da, baina azken finean, komunikazio hori errazteko zubiak falta dira” (Donostiako Harrera Sareko boluntarioa, 2018ko udazkena).

Aldi berean, sarearen ekintzak inguruko herritarren artean sentsibilizazioa eragin duela aurkitu da. Izan ere, giza eskubideen urraketaz kontzientzia hartzeaz gain, iritsi berriekiko errespetuzko jarrerak garatzea lortu dute baita elkartasun horretara batzea ere, laguntza handia jaso dutelarik herritar indibidualen eskutik. Hala ere, egia da zenbait jarrera arrazista ere gertatu izan direla sarea sortu zenetik.

### **3. Erronkak Harrera Sarearen ibilbidean: baliabide urriak, koordinazioa, barne gatazkak, boluntariotzaren inplikazioak eta komunikazioa**

Hasteko, sareak irabazi asmorik gabeko taldeak diren heinean eta instituzioen papera salatzen dutenez, ez dute inolako finantziatorik jasotzen administrazio publikotik. Diru sarrerak herritar indibidualen edota kideen eskutik datoz. Deialdi ezberdinak zabaltzen dira jendearen edo sentsibilizazio berdina duten beste erakundeen artean arropa, elikagaiak edota diru

laguntzak jasotzeko. Hala ere, baliabide hauek askotan ez dira nahikoa etorri berrien errealitate eta behar anitzei aurre egiteko.

“Toldo hura eta horren azpian zeuden 14 oheek ez zuten inolako higie baldintzarik betetzen, hori kanpamendu moduko gauza zen eta arriskutsua zen osasunarentzako. Gero, gaztetxea etxe bat da, funtzio hori dauka, komuna bazeukan baino dutxa ez, hor ibiltzen ziren mangera batekin ez dakit nola dutxatzen [...]. Han zegoen jende piloarekin, segituan sortzen zen zabor eta zikinkeria asko. Azkenean, hori ere ez zen harrera duin bat ematea” (Irungo Harrera Sarea, 2018ko urria).

Bestalde, aipatzekoa da errealitate honen aurrean Harrera Sareez gain aktore ezberdinek esku hartzen dutela eta hauen arteko komunikazio eta koordinazioa askotan konplikatua izaten dela. Alde batetik, instituzio publikoei dagokienez, esan bezala ez dute sarearen lana babestu ez publikoki, ezta finantziazioari begira ere. Bestetik, Gobernuak babesten dituen erakundeekin komunikazioa eta koordinazioa beharrezkoak diren kasuetan mugak topatu dira.

“Udalak eta erakundeek ez digute kasurik egin apenas denbora askoan, eta nahiz eta presioa eragin dugun, ez zegoen inolako koordinazio errealik; whatsapp mezu batzuk baino inoiz ez zen idatzizko komunikaziorik egon”(Irungo Harrera Sarea, 2018ko urria).

Sareak topatu duen beste erronketako bat talde barneko gatazkak kudeatzea izan da, taldeak pertsona eta beraz, iritzi, ezberdinak batzen baititu eta honek erabakiak hartzea zaildu eta moteltzen du. Eztabaida horietako bat egin beharreko lanaren inguruan sortzen da, batzuek asistentzialismoak dependentziara eraman dezakeela uste dute eta salaketara bideratu nahi dute lana, besteek ordea beharrezko lana ikusten dute asistentzia zuzena ematea.

“Eztabaidak ere izan ditugu batzuek pentsatzen zutelako egin beharrekoa salaketa publikoa zela eta sareak asistentzialismoa egiten zuela. Egia da, asistentzialismoa da, baina ez baduzu gustuko agian beste nonbaitera joan behar duzu” (Donostiako harrera sarea, 2019ko martxoa).

Honekin lotuta, boluntariorzarekin lotutako oztopoak ere topatu dira. Alde batetik, sarearen egitura informala dela eta boluntario batzuen konpromiso eta seriotasun falta aipatzen da eta beste aldetik, herritarren edo jende berriaren parte hartzea lortzeko zailtasuna ere agertu da.

“Konpromezuak ez ditugula oso konprometituta hartzen, *me apunto y hoy que me apetece, voy*. Ez du zertan denboran izan konpromezua, baina eginkizun baten ardura hartuz gero, egin, edo gutxienez abisatu ezingo duzula egin. Seriotasun apur bat eskatzea, inor ez dagoenez inoren atzetik, ematen du ez dagoela beharizanik ” (Donostiako harrera sarea, 2019ko martxoa).

Estuki lotuta, jarrera protekzionista eta botere harremanen kezka agertzen da. Botere posizio batean dagoen pertsonak botere gutxiago duen bati laguntza eskaintzen dionean bien arteko distantzia handitzeko aukera baitago eta horrek bien arteko harremanean ondorio negatiboak izaten ahal ditu. Horregatik, laguntza ematea errespetuz eta bestearen erritmoetara egokituta egin behar den zerbait dela aipatzen da.

“Maila berean zaudenean harremanak errazagoak dira, baina norbaitek laguntza eskatzen dizun momentuan zu beste maila batean zaude, altuago. Ez baduzu goxotasun bat, ez duzu inoiz lortuko biok maila berean egotea. Eta gainera, botere harreman horretan hasten badugu erlazioa eta gure jarrera oso zuzena eta zuzentzailea bada, bion arteko ezberdintasuna gehiago handituko da eta zerbait behar duena erasotua sentituko da. Lagundu beharrean mintu egiten duzu eta zurekin haserretu daiteke. Ez da bakarrik lagundu nahi izatea, jakin behar da nola lagundu” (Donostiako harrera sarea, 2019ko martxoa).

Bestalde, etorkinekiko harremanean ere komunikazioaren muga aurkitu da. Gehienek frantsesez hitz egiten duten heinean elkar ulertzea zailtzen dela aitortu dute elkarrizketatuek. Ez hori bakarrik, komunikatzeko moduak ere ezberdinak dira eta batzuetan gaizki ulertuak egoten dira. Izan ere, talka kulturala ere bertakoen eta etorkinen arteko harremana baldintzatzen duen faktorea omen da, puntualitateari dagokionez, ordutegiei dagokienez etab.

“Kultura ezberdintasuna, batzuetan oztopo bat da (bestearen ikuspuntuan jartzea ez da erraza). Emakumeak izanik batez ere, hasieran kostatzen da, “quién es el hombre jefe aquí?” galdetzen dute. Arazo bat dute gainera euskaldunekin, gu oso zuzenak garelako eta haiek, batez ere afrikarrak, buelta asko ematen dituzte puntu batera iristeko. Bortitza iruditzen zaie horren zuzenak izatea, haserre egongo bagina bezala ” (Donostiako Harrera Sarea, 2019ko martxoa).

Bukatzeko, gaur egun sareak topatzen duen zailtasun handienetakoa etorkizunarekiko ezjakintasuna da. Izan ere, orain arte larrialdizko erantzuna emateaz arduratu dira eta migrazio fluxuak jatsi direnean bertan gelditu diren pertsonekin egin dute lan. Orain, gertakariak ezin aurreikusi daude, prestatuta egon nahi dute udaberrian gertatu daitekeen iritsiera posible bati.

## **ONDORIOAK**

Lan honek errefuxiatuek harrera herrialdeetan pairatzen duten egoera aztertu du, bizi dituzten zailtasunak, harrera herrialdeko harrera eta integrazio politikak, gizarte zibilaren papera eta migrazio fluxuen aurrean aurkitu diren erronkak aztertuz. Fokua hurbilduz, Gipuzkoako

errealitatera, 2018ko ekainetik Espainiar eta Frantziar mugen artean bizitako migrazio fluxuen errealitatea aztertu da, bertan sortu diren elkartasun sareen esperientzian erdiratuz.

Hainbat autorek errefuxiatu eta etorkinek harrera herrialdera iristean aurkitzen dituzten zailtasunak zerrendatu izan dituzte eta beren beharrei aurre egiteko prest ez dagoen testuinguru batera iristen direla baieztatu ere (Lee et al., 2015). Gure aurkikuntzek Gipuzkoara iristen diren etorkinen beharrek teorietan aipatutakoekin bat egiten dutela erakutsi dute, azpiegitura falta, baliabide material eza, eta instituzioen esfortzu eskasa azalera direlarik. Gainera, kasu honetan, iritsi berrietako askok ez dute bertan gelditzeko asmorik, beraz, bere zailtasunei 'trantsituan' egotearena gehitzen zaio. Migratzaileentzat 'trantsituan' egotea zaurgarritasun, marginalizazio sozio-ekonomiko eta ziurtasun ezaren garaia da; populazio ikusezina da, ertzetan bizi dena betebeharrak eta eskubiderik gabe (Papadopoulou, 2003). Horrek guztiak eragin negatiboak ditu etorkinen osasun mentalean trantsituan egon, bertan gelditu edo asiloa behar dutenentzat (Medecins Sans Frontières, 2016).

Bestalde, gure aurkikuntzak gizarte zibilaren garrantzia aldarrikatzen duten autoreen teoriekin konparatu daitezke (DeBono, 2018). Izan ere, Harrera Sareek gobernu mailako instituzioek betetzen ez dituzten funtzioak bete dituzte iritsi berriei baliabideak, orientazioa eta asistentzia zuzena eskainiz. Gainera, presioa sortu dute maila instituzionalean baliabide gehiago sortzea lortuz. Mugan emandako giza eskubideen urraketak ere salatu izan dira gizarte zibila inplikatzeko zuten manifestaldi eta zenbait protesta moduren bitartez. Horrela, populazioaren artean errealitate honekiko sentsibilizazioa eta giza eskubideekiko errespetua zabaltzea lortu da. Bestalde, aurkikuntzek teoriarik topatu ez den ekarpen bat egiten dute, gizarte zibilak etorkinen integrazio soziala sustatu eta traumaren moderaziorako espazio bat bermatu baitu.

Honen harira, aipatu beharra dago Harrera Sareen ibilbide eta lorpenek Anthias-ek (2013) ematen duen elkartasunaren definizioa jarraitzen duela, akziorako identitateak sortzen direlako etorkizun komun bat eraikitze helburutan. Kasu honetan, helburu komuna etorkinei harrera duina ematea da eta horretarako modu parte hartzaile eta ez hierarkikoan antolatzen da.

Gobernuz kanpoko talde horien funtzioa guztiz baliagarria den arren, ez litzateke aitzaki bezala erabili behar gobernuak beren ardurak ez betetzeko. Honek politika eta estandar zehatzak ezartzea, baliabideak bermatzea, ingurune baketsu eta gizatiarra mantentzea eta errefuxiatu eta migrazeen osasuna epe labur, zein luzera bermatzen duten programen eraginkortasuna ziurtatzea barne hartzen du. Gainera, migrazioaren kausa eta ondorioak aborlatzen dituzten programak babestu eta hauetan parte hartzea.

Bestalde, literaturak erakutsi duen bezala harrera egiteko esfortzu honetan hainbat erronka topatu izan dira. Besteak beste, sortzen diren behar anitzei aurre egiteko baliabide nahiko edo aproposik ez izatea eta beraz, harrera duin eta egoki bat egiteko (Scholten et al., 2017; UNESCO, 2016). Honetaz gain, Alemania (Hesse et al., 2018) eta Australiaren (Fozdar eta Hartley, 2013) kasuetan aipatu bezala, aktore ezberdinen arteko adostasuna eta koordinazioa batzuetan muga bat izan daiteke modu eraginkorrean lan egiteko (UNESCO, 2016). Laguntza ematearen inguruan eztabaidatzen duten teoriak (Nadler, 2002) ere aplikagarriak dira kasu honetan, izan ere, botere harremanak indartzeko modu bat izan daitekeela azaldu dute aurkikuntzek. Honekin batera boluntarioen artean konpromisoak hartzeko zailtasunak eta parte hartzea lortzearen mugak ere agertu dira. Bukatzeko, beste harrera gizarte batzuek bezala (Bose, 2018; Lee et al., 2015) elkarrizketek hizkuntzaren muga eta arau kulturalen arteko talka azaleratu dute Gipuzkoaren kasuan ere.

Erronka hauen aurrean hainbat gomendio agertzen dira: alde batetik, errefuxiatu eta etorkinen kokatzean eredu defizitarioa erabiltzeak pertsonak debalatu eta populazio orokorrean errefuxiatuak traba bat direnaren irudia indartzen du, ahalduntze eta harrera eredu batek ordea, sare sozialak eraikitzen lagunduko luke (Fozdar eta Hartley, 2013). Bestetik, iritsieren larrialdizko erronkak bideratzeaz gain, epe luzeko erronketarako beharrezko azpiegiturak garatu litezke; hala nola, erresilientzia eta osasun mental egokia bermatzeko espazio edo zerbitzuak edota Amsterdamen bezala, kasuen berrikuspena azkartzeko kudeaketa indibidualizatua (Scholten et al., 2017). Komunitate marginal eta segregatuen sorrera ekidin errefuxiatu-zelai edo etorkinen etxe kolektiboak alde batera utziz eta komunitatearekin nahastea bermatzea aholkatzen da; baliabide ekonomikoen banaketa egokia egin, hizkuntza ikasteko kursoak, hezkuntza, enplegua eta formakuntza bermatuz eta kalifikazioen errekonozimendua erraztuz. Bestalde, gizarte zibilaren elkartasuna eta boluntarioritza koordinatzea gomendatzen da eta inguruko beste hiriekin elkarlana bultzatzea (UNESCO, 2016). Gainera, bertako populazioari dagokionez, Bartzelonako kasua jarraiki, komenigarria litzateke hiritarrek eta mundu lokalarekin etorkinen inklusio soziala sustatzea mentoretza bezalako inizatibak erabiliz (Generalitat de Catalunya, 2017). Honekin lotuta, harreraren inguruan komunikazio eta gardentasun mekanismoetan inbertitzea komeni da, kultura abegitsu baten eredu sustatu eta errefuxiatu eta migranteen iritsierarekin zerikusia duten antsietateak arinduaz (UNESCO, 2016).

## ERREFERENTZIAK

- ACCEM. (2015). Discriminación por motivos de orientación sexual o identidad de género. Boletín EUMIGRE. <https://www.accem.es/discriminacion-por-motivos-de-orientacion-sexual-o-identidad-de-geero/> -tik berreskuratua
- Ager, A., eta Strang, A. (2008). Understanding Integration: A Conceptual Framework. *Journal of Refugee Studies*, 21(2), 166–191.
- Alarcón, X., Preston, J. M., Núria, M., Prats, E., eta Mancini, J. (2018). El rol de la mentoría social en la inclusión social de las personas inmigrantes y refugiadas. <https://mentoringapp.vahid.es/wp-content/uploads/2019/01/Mentoria-sense-autoria.pdf> - tik berreskuratua
- Anthias, F. (2013). Moving beyond the Janus Face of Integration and Diversity Discourses: Towards an Intersectional Framing. *Sociological review*, 61(2), 323–343.
- Amnistía Internacional España. (2019). Personas gays, lesbianas, bisexuales, transgénero e intersexuales son aún perseguidas en muchos países por el mero hecho de serlo. *Diversidad-afectivo sexual*. Madrid: Reuters.
- Bansak, K., Hainmueller, J., eta Hangartner, D. (2016). How economic, humanitarian, and religious concerns shape European attitudes toward asylum seekers. *Science*, 354, 217–222.
- Barcenilla, L. M. (2018, abuztuak 20). Migrantes: una red de acogida trenzada por tres barrios de Bilbao. *eldiario.es*. [https://www.eldiario.es/norte/euskadi/migrantes-paso-ahora-duermen-Santutxu\\_0\\_806319834.html](https://www.eldiario.es/norte/euskadi/migrantes-paso-ahora-duermen-Santutxu_0_806319834.html) -tik berreskuratua
- Bauman, Z. (2017). *Extraños llamando a la puerta*. Bartzelona: Paidós.
- Bernal, N. (2019, martxoak 12). Se buscan familias o grupos de amigos para compartir su tiempo con refugiados. *Cadena Ser Euskadi*. [https://cadenaser.com/emisora/2019/03/12/radio\\_san\\_sebastian/1552393666\\_181879.html](https://cadenaser.com/emisora/2019/03/12/radio_san_sebastian/1552393666_181879.html) -tik berreskuratua
- Berry, J.W. (1990). Psychology of Acculturation. J. Berman (ed.)-en, *Cross-cultural perspectives: Nebraska Symposium on Motivation* (457–488 orr.). Lincoln: University of Nebraska Press.
- Berry, J.W. (2011). Integration and Multiculturalism: Ways towards Social Solidarity. *Papers on Social Representations*, 20, 2.1-2.21.
- Bose, P. (2018). Welcome and hope, fear and loathing: The politics of refugee resettlement in a small Vermont town. *Peace and Conflict: Journal of Peace Psychology*, 24, 320-329.
- Callens, M. S., eta Meuleman, B. (2017). Do integration policies relate to economic and cultural threat perceptions? A comparative study in Europe. *International Journal of Comparative Sociology*, 58(5), 367-391.
- Castles, S., Korac, M., Vasta, E., eta Vertovec, S. (2002). Integration: Mapping the field. *Home Office online report*, 29(03), 115-118.
- CEAR. (2017). *Informe 2017: Las personas refugiadas en España y Europa*. Madrid: Comisión Española de Ayuda al Refugiado. <https://www.cear.es/wp-content/uploads/2018/06/Informe-CEAR-2018.pdf> - tik berreskuratua
- Cortés, A. (2004). La emergencia del codesarrollo: una perspectiva transnacional. Ponencia del IV Congreso sobre la Inmigración en España: *Ciudadanía y participación*, Girona.
- Coughlan, R., Stam, K., eta Kingston, L. N. (2016). Struggling to start over: Human rights challenges for Somali Bantu refugees in the United States. *International Journal of Human Rights*, 20, 123-137.
- DeBono, D. (2018). In defiance of the reception logic: The case for including NGOs as human rights monitors in the EU's policies of first reception of irregular migrants. *Peace and Conflict: Journal of Peace Psychology*, 24, 291-295.
- El proyecto del Gobierno Vasco de promoción del Patrocinio Comunitario en la acogida de personas refugiadas recibe un nuevo espaldarazo internacional (2018, uztailak 16). *euskadi.eus*. <http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2018/el-proyecto-del-gobierno-vasco-de-promocion-del-patrocinio-comunitario-en-la-acogida-de-personas-refugiadas-recibe-un-nuevo-espaldarazo-internacional/>-tik berreskuratua

- Europako Kontseilua (2017). *Human rights activism and the role of NGOs*. <http://www.coe.int/en/web/compass/human-rights-activism-and-the-role-of-ngos> -tik berreskuratua
- Eurostat. (2019). *First time asylum applicants by citizenship, age and sex (2008-2018)*. Luxenburgo: Europako Batzordea, Eurostat.
- Euskadi ha atendido a 6.800 migrantes en tránsito desde junio de 2018. (2019, urtarrilak 29). *Noticias de Gipuzkoa*. <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/2019/01/29/sociedad/euskadi/euskadi-ha-atendido-a-6800-migrantes-en-transito-desde-junio-de-2018>-tik berreskuratua
- Fozdar, F., eta Hartley, L. (2013). Refugee Resettlement in Australia: What We Know and Need to Know. *Refugee Survey Quarterly*, 32(3), 23-51.
- Garcés-Mascareñas, B. (2014). *Local Integration Policies in Barcelona*. KING Project. In-depth Study 12 zenb. Milan: ISMU Foundation.
- Generalitat de Catalunya. (2017). Programa català de refugi. [http://treballiaferssocials.gencat.cat/ca/ambits\\_tematicos/immigracio/persones\\_refugiades/programa\\_catala\\_refugi/](http://treballiaferssocials.gencat.cat/ca/ambits_tematicos/immigracio/persones_refugiades/programa_catala_refugi/) -tik berreskuratua
- Ginebrako Hitzarmena. (1951). *Convención sobre el estatuto de los refugiados*. <https://www.acnur.org/5b0766944.pdf>-tik berreskuratua
- Hesse, A., Kreuzer, K., eta Diehl, M. R. (2018). Dynamics of Institutional Logics in a Cross-Sector Social Partnership: The Case of Refugee Integration in Germany. *Journal of Business Ethics*, 1, 1-22.
- Hiritarron Harrera Sarea. (2018). Red Ciudadana de Acogida (Presentación). <http://mugak.eu/news/red-ciudadana-de-acogida-presentacion> -tik berreskuratua
- Hume, S., eta Hardwick, S. (2005). African, Russian and Ukrainian refugee resettlement in Portland, Oregon. *Geographical Review*, 95, 189-209.
- Hynie, M. (2018). Refugee integration: Research and policy. *Peace and Conflict: Journal of Peace Psychology*, 24(3), 265-276.
- Iglesias-Martínez, J., eta Estrada, C. (2018). ¿Birds of passage? La integración social de la población refugiada en España. *Iberoamerican Journal of Development Studies*, 7(1), 144-167.
- Ikuspegi. (2018). *Barómetro 2018. Percepciones y actitudes hacia la población de origen extranjero*. [http://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2018/bar\\_CAE\\_2018\\_RESUMEN\\_CAS.pdf](http://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2018/bar_CAE_2018_RESUMEN_CAS.pdf) - tik berreskuratua
- Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe. (2018). *¿Acoger sin integrar? El sistema de acogida y las condiciones de integración de personas solicitantes y beneficiarias de protección internacional en España*. Sevilla, España: Asociación Claver.
- Internal Displacement Monitoring Centre. (2016). *Global Report on Internal Displacement [GRID]*. <http://www.internal-displacement.org/globalreport2016/>- tik berreskuratua
- Jackson, C. (1998). Women and poverty or Gender and Well-being? *Journal of International Affairs*, 52(1), 67-81.
- Lee, S., Choi, S., Proulx, L., eta Cornwell, J. (2015). Community integration of Burmese refugees in the United States. *Asian American Journal of Psychology*, 6(4), 333-341.
- Li, S. S., Liddell, B. J., eta Nickerson, A. (2016). The Relationship Between Post-Migration Stress and Psychological Disorders in Refugees and Asylum Seekers. *Current psychiatry reports*, 18(9), 82.
- Makazaga, I. (2018, ekainak 18). El número de solicitudes de asilo se duplica en Euskadi. *El País*. [https://elpais.com/ccaa/2018/06/18/paisvasco/1529344586\\_093696.html](https://elpais.com/ccaa/2018/06/18/paisvasco/1529344586_093696.html) -tik berreskuratua
- Médecins Sans Frontières. (2016). *Neglected trauma, asylum seekers in Italy: An analysis of mental health distress and access to healthcare*. Erroma, Italia: Art&Design.
- Mestheneos, E., eta E. Ioannidi. (2002). Obstacles to Refugee Integration in the European Union Member States. *Journal of Refugee Studies*, 15(3), 304-320.
- Migrazioaren Nazioarteko Erakundea (IOM). (2015). *Some of the good practices from the Conference on Migrants and Cities and World Migration Report*. International Organization for Migration.

- Nadler, A., eta Chernyak-Hai, L. (2014). Helping them stay where they are: Status effects on dependency/autonomy-oriented helping. *Journal of Personality and Social Psychology*, 106, 58-72.
- Nadler, A. (2002). Inter-group helping relations as power relations: Maintaining or challenging social dominance between groups through helping. *Journal of Social Issues*, 58, 487-502.
- Papadopoulou, A. (2003). *Exploring the asylum-migration nexus: a case study of transit migrants in Europe*. Ginebra: Global Commission on International Migration.
- Roblain, A., Malki, B., Azzi, A., eta Licata, L. (2017). After Coming In, Settling In: An Analysis of Early-Stage Acculturation Preferences of Male Syrian and Iraqi Asylum Seekers in Belgium. *International Review of Social Psychology*, 30(1), 20-28.
- Sawtell, J., Dickson-Swift, V., eta Verrinder, G. (2010). 'It's not all tied up with bureaucrats and funding': Autonomous volunteer participation in the rural resettlement of refugees. *The Australian Journal of Social Issues*, 45, 543-558.
- Scholten, P., Baggerman, F., Dellouche, L., Kampen, V., Wolf, J., eta Ypma, R. (2017). *Policy innovation in Refugee integration? A comparative analysis of innovative policy strategies toward refugee integration in Europe*. Erasmus Migration Diversity Institute.
- Scholten, P., eta Penninx, R. (2016). The Multilevel Governance of Migration and Integration. In B. Garcés-Masareñas eta R. Penninx (Ed.), *Integration Processes and Policies in Europe. Contexts, Levels and Actors* (91-108 orr.). Cham: Springer.
- Scholten, P. W. A. (2013). Agenda dynamics and the multi-level governance of intractable policy controversies: the case of migrant integration policies in the Netherlands. *Policy Sciences*, 46(3), 217-236.
- Silva, R. L., Oliveira, J., Dias, C., Pinto, I. R., eta Marques, J. M. (2018). How inclusive policies shape prejudice versus acceptance of refugees: A Portuguese study. *Peace and Conflict: Journal of Peace Psychology*, 24(3), 296-305.
- Sleijpen, M., June Ter Heide, F. J., Mooren, T., Boeije, H. R., eta Kleber, R. J. (2013). Bouncing forward of young refugees: a perspective on resilience research directions. *European journal of psychotraumatology*, 4. doi: 10.3402/ejpt.v4i0.20124
- Strang, A., eta Ager, A. (2010). Refugee integration: Emerging trends and remaining agendas. *Journal of Refugee Studies*, 23, 589-607.
- Turjeman, H., Mesch, G., eta Fishman, G. (2008). The effect of acculturation on depressive moods: Immigrant boys and girls during their transition from late adolescence to early adulthood. *International Journal of Psychology*, 43(1), 32-44.
- UNCHR. (2013). *A new beginning. Refugee integration in Europe*. <https://www.unhcr.org/protection/operations/52403d389/new-beginning-refugee-integration-europe.html> - tik berreskuratua
- UNCHR. (2016). Preguntas frecuentes sobre los términos 'refugiados' y 'migrantes'. <https://www.acnur.org/noticias/noticia/2016/3/5b9007344/preguntas-frecuentes-sobre-los-terminos-refugiados-y-migrantes.html> -tik berreskuratua
- UNESCO. (2016). *Cities Welcoming Refugees and Migrants. Enhancing effective urban governance in an age of migration*. <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000246558> - tik berreskuratua
- Voutira E. (2003). Refugees: Whose Term is it Anyway? Emic and Etic Constructions of 'Refugees' in Modern Greek. In J. van Selm, K. Kamanga, J. Morrison, A. Nadig, S. Vrzina eta L. van Willigen (Ed.), *The Refugee Convention at Fifty: A View from Forced Migration Studies* (65-80 orr). Lanham, EAB: Lexington Books.
- Ward, C., Bochner, S., eta Furnham, A. (2001). *The psychology of culture shock*. East Sussex: Routledge
- Wong, Y. L., eta Solomon, P. L. (2002). Community integration of persons with psychiatric disabilities in supportive independent housing: A conceptual model and methodological considerations. *Mental Health Services Research*, 4(1), 13-28.